



Euskararen Egunaren harira ekitaldi ugari antolatu dituzte, gaur

TOLOSALDEA ▶ Eguna etzi bada ere, bi eskualdeetako ikastetxeetan gaur ospatuko dute, «gure hizkuntza normalizatzeko helburuz» ▶ 2

IRURA ▶

**Telebista
digitala
ikusteko
aukera**

Errepikagailua
Agarre bailaran
jarri du Udalak ▶ 4

UGAITZ RENOBABLES ▶ PILOTARIA



N. LATABURU

«Gaizki hasita
erraza da
amore ematea
partidan»

Egiako Txapelketa
irabazi du pilotari
alegiarrak ▶ 5



Zerkausia, «parrila erraldoi baten pare»

TOLOSA ▶ Txuleta-ren festa. Horrela bataiatu dute datorren astean Zerkausian atonduko duten jatetxe erraldoia. Bertan herriko lau erretegi ezagunetako —Nicolas, Burruntzi, Orue eta Julian— sukaldariak txuleta erretzen ariko dira. Menua zabala

izango dute aukeran herritarrek, ohi baino prezio merkeago batean. Hilaren 6, 7, 8 eta 9an afariak emango dituzte eta 9 eta 10ean, berriz, bazkariak. Argazkian, atzo Donostian eginiko aurkezpen ekitaldiaren une bat. ESTI EZEIZA ▶ 3

ZAS
soinu
ikastaroa
Informatika musikala
(Cubase)
Grabaketa eta masterizazio
profesionala.
P.A. eta monitoriak
Eta aber
943 65 35 35
www.sointek.net

Pitxiak 

Gaur 20:00tan inauguratzen dugu

Edozein motatako osagarriak eta bitxiak
aurkituko dituzu prezio ezin hobean.

 Ez galdu aukera!
Gustatuko zaizu! 

Tel.: 943 67 47 02 • Euskal Herria 12 - Ibarra

BIYOK
PARAFARMAZIA



Haur elikadura • Haurtzaintza
Gizon-emakumezkoen kosmetika

Nafarroa etorbidea 12 behea
TOLOSA

Tel.: 943 11 95 04

EUSKARAREN EGUNA ▶

Euskararen Eguna ospatzeko ekitaldi ugari antolatu dituzte

Gaur, etzi eta asteartean egingo dituzte ekitaldiak bi eskualdeetako ikastetxeetan

ERREDAKZIOA

Euskararen Nazioarteko Eguna ospatuko da etzi, eta hori dela eta, gure herrietako ikastetxeetan hainbat ekitaldi antolatu dituzte.

Tolosako Laskorain ikastolan, esaterako, gaur eta etzi egingo dituzte ekitaldiak; gaurkoan, irratsaio bereziak egingo dituzte HH eta LHko ikasleek, eta mahai jokoetan jolasuko dira. Usabalen, berriz, goizean, poesia errezitaldia egingo dute, eta DBHko 4ko ikasleek txistorra ogitarrekoak salduko dituzte. Arratsaldean, gaztain erreak jango dituzte Sakramentinoetan eta Usabalen. Etzi, berriz, egun osoko egitaraua antolatu dute; goizean, Triangulotik atera eta Lizardiren monumentura igoko dira, eta hamaiketako hartu eta gero, Tolosara jeitsi eta 12:30ak inguruan Euskararen aldeko ekitaldia izango dute Zerkausian, musika, bertso eta abarrek. Arratsaldean, bazkariaren ostean, umeentzat jolasak izango dituzte Berdura plazan.

Hirukideak, gaur egingo dituzte ekitaldi guztiak. *Xabil* maskota-



luz, Jesusen Bihotza ikastolan, Euskararen Eguneko une bat. I. GARCIA

rekin eta *Ireki bihotza euskarari* leloa erabiliz, ikastetxea apainduko dute haur eskolako gaztetxoek. Abesti emanaldia eskainiko dute goizean zehar Jesuitinetan nahiz Gainberrin. Hala, gelaz gela jonago dira abesten. 1. zikloko, 2. zikloko eta 5. mailako ikasleak goizean eta eguerdian, jaialdia egingo dute, euskal jolasetan ariko dira, euskal musika tresnak ezagutuko dituzte, herri kiroleetan ariko dira eta filmak ikusiko dituzte, besteak beste. Bestalde, 6. mailakoek sortutako material aurkezpena egingo dute, eta Goiko Ikasle Batzordeak eginiko DVD saioa ikusiko dute. Halaber, Goiko irratian

euskara landuko dute irratsaio bereziekin.

Villabonan eta Zizurkilen, Jesusen Bihotza ikastolan ere gaur egingo dituzte ekitaldiak; gaztetxoek, esaterako, euskara gaitzat hartuta, marrazkiak egingo dituzte pasiloetan jartzeko, *Argitxo*-ren bisita izango dute, eta arratsaldean jolasak izango dituzte. Lehen Hezkuntzan eta DBHn, marrazkiak, euskal jolasak, kalejira tritilariekin, txokolatada, kirolak... izango dituzte. Iruran, atzo egoitza girotu ostean, gaur pegatinak margotu eta jarriko dituzte ikasleek; 10:00etan ipuin lehiaketako sari banaketa egingo dute; 15:30ean ipui-

nen irakurketa egingo dute, 16:00etan, abestu egingo dute, eta 16:30ean gaztain jatea. Zizurkilgo Pedro Mari Otaño eskolan, Iker Goenagaren, Ainere Tolosaren eta Juan Gorritiren bisita izango dute 10:00etan. Ipuin kontaketa saioak egingo dituzte eta marrazkiekin girotuko dute egoitza. Arratsaldean zehar, jolasak eta agztain jatea egingo dute. Anoetan, euskal kanteekin hasiko dute eguna 09:30ak inguruan, eta ondoren, Arantxa Iturberen hitzaldia, ipuin kontaketa eta jolasak izango dituzte, eta arratsaldean, Udalak antolatutako ipuin lehiaketaren sari banaketa egingo dute, 16:15ean.

Ibarrako Uzturpe ikastolan, Jon Iraolaren bisita izango dute 09:00etan, 3x3 saskibaloitxapelketaren finalak jokatu dituzte ondoren, eta sorpresak izango dituzte ikasleek, besteak beste.

Leitzako Erleta eskolan asteartean ospatuko dute Euskararen Eguna; pintxoaren txapelketa egingo dute eta ondoren salgai jarri bildutakoa euskara mailan egingo diren ekitaldiertako baliatzeko. Askotariko jolasak ere egingo dituzte.

TOLOSA ▶

Tolosako Musika Eskolakoek kontzertua bihar

Amarozko Auzo elkarteak antolatuta, kontzertua eskainiko dute Tolosako Udaleko Musika Eskolako ikasleek. Bihar izango da emanaldia Amarozko auzo elkartearen lokaletan, dispentsarioa dagoen lokaletan, 19:00etatik aurrera.

TOLOSA ▶

Gabonetako Ludoteka egingo du Galtzaundik

Urtero bezala, Galtzaundi Euskara Taldeak Gabonetako Ludoteka antolatu du. Ludoteka Tolosako Kultur Etxeko 2. solairuan izango da, eta helburu bezala, «gure neska-mutilek ongi pasatzea, euskaraz, normaltasun osoz» izango du. Horretarako, ekin-tza ezberdinak antolatuko dituzte, hala nola, jolasak, eskulanak, abesti eta antzerkiak... 3 urtetik 10 urte bitarteko haurrentzat dago zuzendua, eta 09:00etatik 13:30etara izango da ordutegia. Interesa dutenek abenduaren 1etik 18ra arte izango dute horretarako aukera. Galtzaundiko egoitzara jo behar dute, goizez, 08:00etatik 14:00etara, edota telefonoz, 943 65 50 04 zenbakian egin ahalko da.

iragarki laburrak ▶

IKASTETXE PUBLIKOAK

Langileak behar dira.

Garbitzaileak, sukaldariak, sukalde laguntzaileak eta atezainak behar dira. Telf.: 943 44 10 05.

UDALETXEETARAKO

LANGILEAK

Hainbat lanpostu. Lorezainak, elektrikariak, igeltseroak, operarioak, gidariak eta peoiak behar dira. Telf.: 943 44 10 05.

ZAINDARIAK

Museo eta artxiboetarako.

Zaindari lanpostuak daude. Telf.: 943 44 10 05.

BEZERO ARRETA

Aireportuetan. Lanpostuak daude betetzeko bezeroen arreta sailean. Telf.: 943 44 10 05.

LASTER DEIALDIK

Lanpostu deialdiarako prestakuntza. Suhiltzaileak, udaltzainak eta ertzainak prestatzeko dokumentazioa eta klaseak. Telf.: 943 44 10 05.

ADMINISTRAZIO

PUBLIKORAKO DEIA

Plaza hutsak daude. Laguntzaile, administratiboak, liburuzainak, harrengariek, telefonistak eta informatikariak. Telf.: 943 44 10 05.

HEZKUNTZA MINISTERIOA

2/06 Lege Organikoko lanpostu deialdiak daude laster.

Haurtzaindegiak, Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntza. Telf.: 943 44 10 05.

ELBARRITUAK

Lanpostuak. Lanpostu libre finkoak daude. Telf.: 943 44 10 05.

OSAKIDETZA

4.000 plaza libre. Erizain laguntzaileak, geriatría laguntzaileak, zaindariak eta laborategiko laguntzaileak. Telf.: 943 44 10 05.

GIDARIAK

Lanpostu finkoak. Gidariak behar dira lanpostu finkoak betetzeko. Telf.: 943 44 10 05.

MERKATARITZA ▶

Gipuzkoako merkataritza sariak emango dituzte gaur

ERREDAKZIOA

Gaur emango dira jakitera Gipuzkoako Kamarak XIV. edizioan emango dituen Gipuzkoako merkataritza sariak. Edizio honetarako Alde Zaharra Dendak eta Igarondo elkarteak ondorengo Tolosako dendak aurkeztu dituzte: Gorrotxategi dietetika, Mitxeleta, Iruñi altzariak eta Ayerza mertzeria. Bestalde, Tolosako Udalak Alde Zaharra Dendak eta Igarondo proposatu ditu, egin duten lanagatik, erakundeek merkataritza sustatzeko egindako lanari errekonozimendu gisa ematen den sarirako.

KULTURA ▶

Txotxongiloen tailerra egingo dute bihar

Igarondo elkarteak antolatuta, 17:00etatik aurrera izango da Lopez Mendizabal plazan

ERREDAKZIOA

Igarondo Tolosako Merkatarien elkarteak aste honetan 24. Tolosako Nazioarteko Txotxongilo Jaialdia ospatzen dela eta, bertako egitarauarekin bat egin nahi izan du. Hala, larunbat arratsaldean «merkatal giroteak jarduerak antolatzeko duen helburuarekin» jarraituz, txotxongilo tailerra jarriko du bihar martxan.

Igarondo elkartetik adierazi dutenez, «etxeko txikienek hainbeste gustatzen zaizkien papin hauek sortzen eta moldatzen ikasi eta praktikatu

ahalko dute antolatu ditugun tailer hauen bidez». Hain zuzen ere, Tolosako Lopez Mendizabal plazan jarriko dute karpaberezia, eta bertan txotxongiloak diseinatu eta egiteko erabili ahal izango dituzten elementuak aurkituko dituzte; «17:00etatik aurrera jarriko dugu martxan ekimena, eta bertan parte hartu nahi duenak, bertaratu besterik ez du egin behar». Asvineneako kide batzuk egongo dira bertan; hauek azalpenak emango dituzte, eta ideiak eman eta nola egin erakutsiko diete gerturatzeko direnei.

KULTURA ▶

Tolosa «parrila handi bat» izango da bost egunetan zehar

Zerkausian, erretegiatiko menu berezia dastatzeko aukera izango dute herritarrek hilaren 6tik 10era bitartean



Txuletaren jaialdian parte hartuko duten zenbait kide atzoko aurkezpenean. E. EZEIZA

ESTI EZEIZA

Tolosa «parrila handi bat» izango da datorren astean. Hilaren 6tik 10era estreinakoz *Txuletaren festa* ospatuko da. Atzo aurkeztu zuten egitasmoa Donostian, Michel Ezkiaga eta Juanjo Lapitz gastronomoek, Luis Angel Alonso Viña La Guardia upategiko ordezkarriak eta Joxemi Gomez, Turismo, Enplegu eta Garapen zinegotziak. Hauekin batera izan ziren jaialdi honetan parte hartuko duten hianbat pertsona: Pedro Ruiz, Juanjo Pascual, Javi Ugaldede eta Matias Gorrotxategi sukaldariak; Roberto Ruiz Festaren koordinatzailea, Realeko zenbait jokalarri, Gorrotxategi eta Ezeiza gozotegi-koetako ordezkarriak eta Carnicas Goyakoak.

Tolosa hiribildu izendatu zuteneko 750. urteurrena ospatzen ari den honetan, hiriak omenaldia egin nahi dio bere gastronomiari, bereziki, erretegiei. Izan ere, Tolosan sortu ziren idi txuleten erretegiak. Hala, bost egunetan zehar, menu berezia dastatu ahal izango dute Zerkausian. Hau prestatzeko, Tolosako lau erretegi ezagunenetako sukaldariak ariko dira lanean: Nicolas, Burruntzi, Julian eta Orue erretegiatxoak.

Sukaldariak jendearen aurrean, Zerkausi berriatuan, ariko dira txuletak erretzen. Lau sukaldari hauek elkarrekin jardungo dira, dakiten guztia

TXULETA FESTA ▶

ORDUTEGIA

- ▶ 6,7,8 eta 9an afariak emango dira, 20:00etatik 22:00etara.
- ▶ 9 eta 10ean bazkariak, hemen 13:30etik 15:00etara bakarrik joan ahal izango da.

MENUA

- ▶ Jabugo urdaiazpikoa.
- ▶ Nafarroako zainzuriak.
- ▶ Tuterako kukuluak.
- ▶ Lodosako piperrak.
- ▶ Idi-txuleta.
- ▶ Idiazabal gazta.
- ▶ Teillac, zigarrotxoak eta Xaxuak.
- ▶ Broton ardoarekin lagunduta.

erakusten. Hala, Tolosako erretegi ezagunenak kanpora aterako dituzte beren parrillak, erretegiatiko menu tipikoa emateko. Horrez gain, eskualdeko gastronomiako produktuak dastatzeko eta erosteko

TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Zeuk idatzi. Dituzun kexa, albiste, iradokizun nahiz irizirik emateko aukera zabaltzen dizu atal honek. Hau argitaratu nahi izanez gero, NAN zenbakia eta izena eman beharko dituzu fidagarritasuna ziurtatzeko.

aukera ere izango da, denek postu bana izango baitute.

«Noiz jan duzue azken txuletoia? Ez txuleta, txuletoia bai zik». Galdere horrekin hasi zuen atzo Joxemi Gomezek aurkezpena. Hirurogeiko hamar-kadan, nekazaritzaren mekanizazioarekin batera, txekor txuletak erre beharrean, ordura arte idi haragia izenez ezagutzen zena erretzen hasi zen Julian Rivas. Halaxe bihurtu zen isi txuletaren lehen erretegi. Honen harira, zinegotziak azpimarratu zuen, Tolosa «txuletaren sehaska» dela, eta horrez gain eskola bat ere bihurtu hau kanpora ateratzeko aske. «Bestalde, produktu hau kanpora ateratzeko ere jakin izan du Tolosak», horren adibide da, Matias Gorrotxategiren bi semeek Madrilen lortu duten arrakasta txuleta eta babarrunekin.

iragarki laburrak ▶

SALGAI

- Autoa.** Ford Escort 1800. 16V. 9 urte. Egoera ezin hobean. Deitu zenbaki honetara: 687 22 57 07.
- Autoa.** BMW M3. urdina, 286 zaldi. 1995 urtekoa. 153.000 km liburuarekin. 18ko llantak eta tsapaia. Deitu 943 65 41 43ra.
- Furgoneta.** Wolsvagen Caravell. NA-AD, zortzi zentzako tokia. 2.400 diesela. 600 66 69 28.

GIZARTEA ▶



Gabonak hemen dira jada

E. Ezeiza ▶ Gabonetarako egun gutxi falta diren honetan Alde Zaharrak Dendak elkarteak kanpaina berri bat jarri du martxan. *Irekita* izeneko esloganarekin, herritarrei eraberritutako Alde Zaharra erakutsi nahi diete. Hau zabaltzeko kartel ezberdinak ipiniko dituzte elkarteetako dendetan. Bestalde, udaletxearekin elkarlanean, kaleak modu berezian apainduko dituzte eta 2.500 euroko erosketa-txekeak banatuko dituzte. HITZA

KULTURA ▶

Bonberenea bere 7. urtemuga ospatuz

ERREDAKZIOA


Bonbereneak zazpi urte bete-ko ditu laister, eta hori ospatzeko asmoz, datorren hilean ere hainbat ekitaldi gauzatu-ko dituzte: kirol arlokoak, musikakoak eta beste askotakoak ere.

Asteburu honetan, musikaz nahiz kitolaz gozatzeko aukera izango da Bonberenean. Gaur Atila y los Unos rock talde bateranoaren kontzertua izango da 22:00etan.

Biharkoan berriz, Tolosaldeko herrien arteko futbol txapelketa jokatu-ko da. Parte hartuko duten taldeak ondorengoak izango dira: Alegiko

gaztetxea, Amezketa, Lizartza-ko gaztetxea, Ibarrako gaztetxea, Leizta eta Bonberenea. Amaitzeko, etzi, Zine-klubean El diablo se viste de prada filma izango da ikusgai 19:00etan.

Astean zehar ere egongo da zer ikusirik, ostegunean, *Euskal musikaren egoera aztertuz* izenpean hitzaldi bat izango da 19:00etan.



Salgai (Tolosa) Larramendi kalean, Voith-en parean. pisu polita. 60m2. 2 logela, egongela, sukaldie osatua, bainugelak osatua eta 20m2-ko terraza.

Salgai (Tolosa) Larramendi auzoan etxe zoragarria. 5 logela bikoltz, 3 bainugelak, sukaldie osatua eta oso polita, egongela-jungela. Garaiea bikoltz eta itxia. Lorategia ere badu.

Salgai (Donostia) Berioja. Apartamentu apaina dena kanpoaldera begira. Lorategia 47m2. Garaiea eta trasteroa.

Salgai (Tolosa) Aparta. Gernikako arbolan, 93m2. Garaiea aukeran.

Salgai (Tolosa) Gorosabel kalean. Azkenengo solairuan 2 pisu eraikituzta berrikoak. Estreinatze. 2 logela, egongela, sukaldie osatua, bainugelak. Dena kanpoaldera begira. Igogailuarekin. Oztoporik gabe.

Salgai (Tolosa) Alde zaharrean 75m2-ko pisu polita eraberritua. Sukal handia eta osatua, 2 logela, egongela-jungela, bainugelak osatua. Hitzartutako igogailua.

Salgai (Tolosa) Alde zaharrean 50m2. Aniko apaina estreinatze-ko reformatu ostean. Gozatezko agelak.

943 69 71 96 • 675 705 268
Korreo Kalea 50

KONTSU TABERNA
Asteburuko menua
Plater konbinatuak
Astearteak itxita
Orexa • 943 68 21 54

NC Nekane Caballero
Lda Col 3429

- Aholkularitza juridikoa: zibil, penal eta administratiboa
- Higiezin zerbitzuak

Andia kalea, 1 • 1C □ 20400 TOLOSA
Tel.: 943 11 82 82

IRURA ▶ TEKNOLOGIA



Errepikagailua —etxolaren gainean eta ondoko zutabeen— Agarre bailaran jarri du Udalak. I. GARCIA

Telebista digitala ikusteko aukera dute herritarrek

Errepikagailua Agarre bailaran jarri du Udalak eta antenak alde horretara begira jarri behar dute seinalea jasotzeko

IMANOL GARCIA

Irurarrak telebista digitala ikusteko aukera dute dagoeneko. Aurreko ostiralean jarri zuten lurteko telebista digitalaren errepikagailua eta astelehen honetan egin zituzten frogak. Errepikagailua Agarre bailaran jarri dute, kanposantuen inguruan eta antenak alde horretara begira jarri behar dira. Egun, etxeetan dau den antenei beharrezko tres-

nak jarri behar zaizkio eta gero etxeetan deko difikatzailea jarri beharra dago. Errepikagailuak ondorengo kanal hauetan bidaltzen ditu telebista seinaleak: 22, 24, 26, 28, 30 eta 36.

Telebista digitalarentzako errepikagailua jartzea, Laskibar auzoan dagoen errepikagailu analogikoarekin zerikusia du. «Irurako beste auzoetakoek edo Tolosara edo Jaizkibel aldera jarrita zeuzkaten antenak, telebista digitala

ikusi ahal izateko», dio Marimi Ugalde alkateak. «Laskibarreko errepikagailua zahartzen ari zen eta arazoak ematen ari zen». Errepikagailu hori aldatzeko gestioak egiten hasi zirenean, enpresatik azaldu zioten hobeagoa zela digitala jartzea. «Horrela, galdetu genuen Irura guztirako errepikagailua jartzea nola aterako zen eta azkenean erabaki horixe hartu dugu», azaldu du Marimi Ugaldek.

VILLABONA ▶ EUSKARA

Euskaraz dauden webguneentzako dirulaguntza deialdia egin du Udalak

ERREDAKZIOA

Villabonako Udaleko Euskara Zerbitzuak dirulaguntza deialdia egin du webguneak euskaraz egingo dituzten herriko elkarte, establezimendu, erakunde edo enpresentzat. Dirulaguntza hauen bitartez, Udalak euskararen erabilera sustatu nahi du hain garrantzitsua den esparru honetan.

Diruz lagunduko dituzte eduki osoa euskaraz duten webguneak, baina horrek ez

du egotziko beste hizkuntza batzuetan ere izatea.

Deialdiaren baldintzen arabera, ez dira lagunduko webgune pertsonalak, ez eduki iraingarriak dituztenak, ezta edukietara iristeko edonolako mugak jartzen dituztenak ere; halaber, ez dira deialdi honetan sartuko edozein herri erakunderi lotutako enpresa, talde, elkarte eta abarretako guztiak. Beraz, eskaera egiteko unean webguneak egina egon behar du, Udalak aztertu ahal

izateko. Dirulaguntza hauek jaso ahal izateko beharrezkoa da eskatzaileak egoitza fiskala eta soziala Villabonan izatea. Dena den, deialdi honetako baldintzak zehatzago ezagutu nahi dituenak Villabonako Euskara Zerbitzura jo dezake, eta bertan adieraziko diote zer aurkeztu behar duen eskaera egiteko. Halaber, www.villabona.net webgunean ere jaso daiteke informazioa. Interesatuak eskaria egiteko epea hilaren 15ean bukatuko zaie.

ANOETA ▶ POLITIKA

Batzarra egingo du bihar ezker abertzaleak

ERREDAKZIOA

Anoetako ezker abertzaleak batzarra egingo du bihar, udal-letxean, 10:30ean hasita. Eguerdia aldera bukatzeko asmoa dute eta ondoren Kuku elkartean hamaiketako antolatuko dute. Batzarrerako deiarekin batera, Anoetako ezker abertzaleak igorritako oharrean diotenez, «urteak joan eta urteak etorri, ezker abertzalea lanean aritu da Anoetan, herrigintzan. Lan horren fruitutzat, herrian sendo errotutako taldea da gaur egun ezker abertzalea, erreferente politiko eta kultural sendoa da Anoetan».

Azkeneko lau urteetan ezker abertzaleko kideek bere lana ezin izan dutela bete azaltzen dute. «PNV-EA taldeak baztertu egin gintuen Udaletik, lege arrotz batez baliatuz. Gu kanpoan utziz, Udalaren jaina eta jabe egin ziren, bate-

re oposiziorik gabe. Udala bere intereserako hartuz. Baina ez da hori Anoetan behar genuen Udala, agerian geratu denez». Lau urte hauetan agertu diren «gabezia latzak» zehazten dituzte: «Ez dago herriaren parte-hartzerik Udalean, euskara eta kultura ez dira batere zaindu, zenbait zerbitzu pribatizatu eta garestitu egin dira (nahiz eta zerbitzu horiek geroz eta eskasagoak izan), babes ofizialeko etxeak bukatzeko daude oraindik...».

Ezker abertzaleak «lanean jarraitu» duela dio azken urte hauetan, «nahiz eta Udalaren babesik ezin izan, hainbat eta hainbat ekimen jarri ditugu abian, eta aurrera begiratzen ere ez zaigu ilusiorik falta. Datozen hauteskundeak ditugu orain buruan, eta ari gara dagoeneko haiek prestatzeko lan-talde bat osatzen», azaltzen dute.

ANOETA ▶ AHT

Larratzeko zabortegiaren berri emango dute bihar

ERREDAKZIOA

Anoetako AHT Gelditu! Elkarlanak, Anoetarrok Auzolanean herri plataformak eta Anoetako Gazte Asanbladak beste ekintza informatibo bat antolatuko du AHTren inguruan, biharko. Oraingo honetan Larratzeko zabortegiaren inguruko informazioa emango dute.

ΣEkitaldiekin 15:30ean hasiko dira. Mendi martxa egingo dute herriko plazatik abiatuta kaltetutako guneraino. Ondoren, 16:30ean zuhaitz landaketa egingo dute. Ondoren, panel informatiboa jarriko dute Larratzeko zabortegiaren berri emateko. Trikitilarien musika entzuteo aukera eta merienda dastatzeko aukera ere izango dira.

AUTODETERMINAZIOA ▶

Auto karabana etzi egingo dute Alegialdean

Autodeterminazio taldeak etziraiko autodeterminazioaren aldeko auto karabana antolatuko du. 11:30ean Ikaztegiako kiroldegiko aparkalekuan bilduko dira, handik Alegia, Altzo, Amezketa, Abaltzisketa eta Orendaineraino iristeko. Orendainen bertan bazkaria egiteko asmoa dute partaideek. Deialdia irekia da.

ALEGIA ▶

Bihar, Intxurreren hiru partida eskualdean

Lurraldekako Intxurre taldeak etxean jokatu du 15:30ean, bihar, Lasalleren kontra. Ordu berean jubentzeko Villabonako aurka jokatu dute. Villabonan kadeak ariko dira 12:00etatik aurrera. Neskak Zaldibian 20:30ean lehiatuko dira gaur. Aurreko asteburuan kadetek ez ezik beste guztiak ere irabazi egin zuten.

UGAITZ RENOBALDES ▶ PILOTARIA

«Partida gaizki hasten bazara amore ematea erraza da»

Ugaitz Renobales pilotariak Egiako Txapelketa Alegiara eraman du, Irureta atzelaria bikotekide izanda

NEREA URBIZU

20 urteko pilotari alegiarra da Ugaitz Renobales. Igandean Egiako torneoan txapela eskuratu zuen Iruretarekin batera. Horrez gain, finaleko pilotari onenari emandako saria ere jaso zuen alegiarrak. Lasagarmendia bikotearen aurka jokatu zuen, hain zuzen, eta 22-13 irabazi zuen.

Pozik al zaudu txapelekin?

Bai, gustura. 8 tanto egin genituen Iruretaket eta biok, Lasagarmendiaren aurka: indartsu hasi ginen. Partida ere ondo

atera zitzaigun, hasieran 4 saketan tantoak lortu nituen. Irureta atzelariak ere asko egin zuen... Finaleko pilotari onenari emandako garaikurrak ere ilusioa egin zidan, baina hura gabe ere gustura. Atzelariak ere merezi zuen. Nik, aurrelaria izanda, tanto gehiago egiteko aukera dut eta baliteke horregatik eman izatea. Zuritzeko aukera gehiago ematen du aurrelari izateak.

Iruretarekin ez da jokatzeko duzun lehen aldia.

Ez. Beste txapelketaren batean ere ibili izan naiz. Ondo molda-



HITZA

zaren gara. Partida batean nerbioak kontrolatzen jakin behar da. Normalean gaizki hasten bazara partida batean etsi egiten duzu, nerbioak... Baina horretara ere ohituta gaude. Inportantea da bikotearen papeira, ezagutzeara...

Banaka edo binaka: zor nahiago duzu?

Niri gehiago binaka gustatzen zait. Horretara ohituago nago. Banaka jokatzeko eskuek

gehiago sufritzen dute, baina lau t'erdikoan aritzea ere gustatzen zait. Jokatzeara da helburua.

Zein txapelketatan ibiliko zara orain?

Orioko Txapelketan finalerdia irabazi genuen Eneko Galarra eta biok asteartean. Finala hurrengo asteazkenean izango da, Orioko festetan, hain zuzen. Zaldibarren eskuz banakako finalerdian nago. Binaka, aldiz,

Lezamako eta Llodioko torneoan nabil. Jokatzeko nabilen bitartean, beti gustura: hor ibiliko naiz gerra ematen.

Irujo ala Barriola?

Ni Barriola-zaleagoa naiz, nahiko nuke berak Lau t'erdiko finala irabaztea. Martinez de Irujo faboritua da, baina edozer gerta daiteke finalean. Leitzarra ondo ikusi dut azkenaldian. Beraz, partida irekia izango dela uste dut.

POLITIKA ▶

Bi atxilotuek Auzitegi Nazionalen deklaratu dute

ERREDAKZIOA

Atzo 14:00etatik aurrera hasi ziren deklarazioak egiten Madrilgo (Espainia) Auzitegi Nazionalen, Tolosako Haritz Lopez eta Eneko Elola alegiarrak. Teresa Palacios epailearen aurrean izan ziren biak.

Bi gazteei «estrago eta kale indarkeria» leporatu diete. Bilbon hilaren 10eko manifestazioarekin batera egondako «distiluetan» izan zirelakoan. Eskualdeko bi atxilotuak aurrean atzo Alegian kontzentrazioa egin zuten. Gaur, aldiz, Tolosako gazte mugimenduak 19:30ean egingo du manifestazioa Triangulon, «PNV, PSOE eta ertzainen erasoak gogor salatzen».

12:00etan ikastetxeen geldialdiak ere deitu dituzte gaurko, eta manifestazioa, aldiz, 12:30ean Triangulon. Beraz, bi manifestazio izango dira gaur.

LEABURUKO OSTATUA

- Eguneko Menua (aste guztian, larunbat eta igandea izan ezik)
- Karta aste guztian zehar

Urrope plaza • Leaburu
Tel.: 943 67 15 48

Argi eta egoki idazteko, oinarritzko tresna

estilo LIBURUA

ZURE LIBURU DENDAN
25 €

berria

Harpidedunentzako eskaintza berezia: 20 €

Eskariak egiteko
Tel.: 943 30 43 45
harpidetza@berria.info

Aukera ezazu, bizi euskaraz **berria**

jantzi

hitza ren jertseak

HITZAren egoitzetan salgai

IBARRA ▶ AZPIEGITURAK

Pasabideko lanekin hasi dira Otarreaga eta Apaiz Errekan

Atzo hasi ziren langileak Otarreaga eta Apaiz-Errekan gaineko pasabidea egiten; guztira, gaineko bi pasabide, bi abiadura erreduktore eta espaloia izango ditu

MADDI SOROA

Ibarratik Leaburura doan errepidean, Apaiz-Erreka eta Otarreaga auzoak batzen diren puntuan, gaineko pasabidea egiten hasi ziren atzo langileak. Gaineko pasabideak, Emeiterio Arredera doan bidetik Molpoidera doan kalerainoko zabalera izango du, gutxi gora behera. Pasabide honen helburua Apaiz Erreka eta Otarreaga arrisku egoerari irtenbidea ematea izan da.

Pasa den irailaren 28an Otarreaga eta Apaiz Errekako bizilagunak Ibarratik Leaburura doan errepidearen inguruan irtenbidea eskatzeko batu ziren. Duela 5 urtez geroztik «arriskua, ezinegona eta haserre» zituzten barnean. Horregatik elkarretaratzeak burutu zituzten Ibarrako Udalari irtenbidea eskatzeko, espaloiak, zebraideak eta gaineko pasabideak jartzea, hain zuzen ere.

Gaur arte, ostegunero-ostegunero bildu dira bizilagunak, «bai haurtxoek baita helduek ere, kalean harantz eta honantz lasai ibiltzeko eta nagusiki, zerbait gertatuko denaren beldur-rekin ez bizitzeko» eskatzeko.

Ibarrako Udalak kasu egin die bizilagunen eskakizunei, izan ere, elkarretaratzeak egiten hasi zirenetik bi abiadura erreduktore eta gaineko pasabide bat ezarri baitira. Atzo hasitako lanak bigarren gaineko pasabidea osatuko lukete eta aurrera begira, Leaburutik Ibarrarako noranzkoan eskuin aldean espaloia egiteko proiektua onartua du jada.

Bizilagunek azaldu duten araberako «Ibarrako Udala



Langileak gaineko pasabidea egiten hasi zirenean, atzo. M. SOROA



Bizilagunek espaloia Zumardi Handiraino luzatzea eskatu diote Tolosako Udalari. M. SOROA

Tolosako Udalari eskea

Apaiz Erreka eta Otarreaga bizilagunak ez daude guztiz gustura. Orain artean egindako aldaketek egoera hobetu duten arren, hasierako helburu berarekin jarraitzen baitute, Ibarratik Leaburura doan errepidearen alde banatan espaloia jartzeko nahiarekin, hain zuzen ere. Hori ez da lan erraza, antza.

Ibarratik Leaburura doan errepidearen ezkerreko aldean Ibarrari dagokio, eskubiakoa, ordea, Tolosaren lurretan dago. Ibarrako Udalak, espaloia egiteko baimena eta kudeaketa prozesua ere martxan ditu jada eta beraz, Apaiz-Erreka kaletik Otarreaga kaleko azken etxeetaraino espaloia ezarriko dute epe motzean.

Otarreaga eta Apaiz Errekako bizilagunak adierazitakoaren arabera, ordea, «espaloia errepidearen bi aldeetan jartzea nahiko genuke». Ezkerreko aldean, esan bezala Tolosako lurretan dago, ordea, eta bizilagunek adierazitakoaren arabera, «Tolosako Udalak ez du interesik erakutsi, ez kompromisorik hartu, ez eta arazoa konpontzeko mugimendurik egin ere».

Tolosako Udalaren jarrera salatzen eta Ibarratik Leaburura doan errepidearen ezkerreko aldean espaloia lortzeko ostegunero-ostegunero biltzen jarraituko dira bizilagunak bidea mozteko eta euren nahia lortzeko. ◀

eskertu beharrean gaude, eskakizuna egin genuenetik unero informatuta izan gaituelako eta gurekin bildu delako errepidearen inguruko aldaketan berri emateko».

Auzoan gaineko pasabideak eta erreduktoreak jarri dituztenetik «apur bat bada ere, lasaitasuna lortu» dutela azaldu dute Otarreaga eta Apaiz Errekako bizilagunak.

hilberria ▶

Josefa Lasa Barrenetxea (Andrea)

Herenegun hil zen, 79 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.
-Goian bego-



Senarra: Jose Manuel Aguirreurreta: seme-alabak: Antonio eta M^a Jose, Tere eta Iñaki, Jose Mari, Lourdes (+) Miguel eta Maribel, Jesus eta Eukene, Jose Martin eta Elena, Itziar eta Jose Jabier, Arantxa eta Jose, Javier eta Maria Jesus; bilobak, birlobak, anai-arrebak, ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde oitotz bat eskatzen dizuet eta arren etor zaitezte Gaur OSTIRALA, arratsaldeko SEIRETAN, Asteasuko SAN PEDRO parroki elizan, gorpua bertan dela elingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

oharra ▶ gorpua bella Tolosako Funeraria
Vascongadako Bielatikoak dagotegian dago

ASTEASU, 2006ko abenduaren 1ean

▶ hilberriak
▶ urteurrenak
▶ eskertzak

**Gipuzkoan
50.000 etxetara**

HITZA guztietan prezio beragatik.

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

UNAI ELIZASU ▶ GAI-JARTZAILEA ETA LEITZAKO BERTSO TALDEKO KIDEA

«Herriko jendeak jakin badaki zerbaitetan gabiltzala»

Bertsoekiko zaletasunak bultzatuta, Unai Elizasuk lau urte daramatza beste lagun batzuekin astero bilduz

NAIARA GARZIA

Unai Elizasuk bertsoaritzaren batean lan egiteaz gain, Euskal Herriko plazetan gai-jartzaile bezala aritzen da. Urte batzuk daramatza, gainera, bertsoarekiko zaletasunak bultzatuta beste lagun batzuekin Leitzako udaletxean astero bilduz, bertso eskola moduko batean.

Noiz hasi zineten elkartzeko?

Lehenago lagun batzuk biltzen ziren eta duela lauzpabost urte, ni etorri nintzenetik, serioago edo hasi ginen, Migel Mari Elosegia, Diego Riaño eta ni. Lagunarteko kontu bat zen eta astean behin biltzen ginen, udaletxean bertan. Aurten, berriz, 6 gara.

Herrian kantatzeko aukerak sortu al zaizkizue?

Duela 4 urte kros egunean kantatu genuen eta geroztik urtero kantatzen dugu. Inauterietan ere abesten dugu, sagardotegian eta baita Olentzeroren etorreran ere, baiakoian

jarri eta Olentzerori bertso pare bat kantatzen dizkiogu.

Herrian ezagutzen al zaituzte?

Herriko jendeak badaki zerbaitetan bagabiltzala, gauza askorik ez jakin arren. Edozein momentutan bertsoaren bat nahi badute guregana jotzen dute.

Zenbat pertsona biltzen zarete orain?

Aurten dagoeneko 6 lagun gara. Bertso taldea bestelako tamainu bat hartzen ari da eta beste planteamentu batzuekin hasi behar dugu aurrera begira.

Zein da zuen asmoa?

Herriari gehiago eragitea, gure presentzia leku gehiagotara zabaltzea, jendeak bagabiltzala jakin dezan, eta urtean zehar bertsoaritzan inguruan egiten diren gauzak guk erabakitzea. Adibidez, Leitzako Tiburtziotako saioa azkeneko lau urteetan guk kudeatu dugu eta gu hasi ginenetik ezberdintasuna nabarmena izan da. Azkenean herriari zerbitzu bat eman behar diogu, txistulariak eta txalapartariak bezala.

Bertsolaritzari dagokionez, urte guztiko egunik garrantzitsuena da Tiburtziotako, ez?

Leitzara eliteko bertsolariak etortzen diren egun bakarra da. Berez herriko festa batzordeak antolatzen du, baina orain guk antolatzen dugu: bertsolariak aukeratzen ditugu, guk antonitzen dugu plaza...

Zuen helburua aurrera eramateko lehenengo urratsa zein izan da?

Etxe-Zurin afari bat egin genuen atzo Leitzako bertsolari zaharrek. Hauei bagaudela adieraztea da gure asmoa. Nafarroako bertsozale elkartearkin ere harremanetan hasi gara. Honek herriko eskolan lan egiten du, umeekin. Gure helburua herriko bertsolaritzaren guztia poltsa berean sartzeta da eta kultur ekintzetan parte hartzea, dirurik badago.



N. GARZIA

Asteartero biltzen zarete. Zer egiten duzue?

Orain arte, Riaño eta Luzek Nafarroako txapelketan parte hartu dute eta haiek prestatzeko beti bapateko bertsoak botatzen genituen. Aurten beste hiru sartu dira, eta hauen maila ezberdina denez, beste modu batetan ari gara lanean orain: bertsoaren egitura nolakoa den azaltzen dugu, zer den zortziko txiki bat, zortziko handi bat, errimak... azken batean, bertsoetan irakatsi egin behar diegu.

Zu gai-jartzailea zara. Nola egiten duzu gai hautaketa?

Hori etxeko lana da. Arituz ere ikasten duzu eta bertsolariekin nik oso harreman zuzena daukat, haiekin ordu asko ematen baititut eta badakit haiek zer nahi duten eta nola nahi duten.

Gaia jartzea ematen duen bezain erraza al da?

Oso erraza ematen du, baina bertso mundua oso ongi ezagutu behar duzu. Nire aurreneko saio ofiziala Leitzan izan zen, eta astebate lehenago Egañarekin egon nintzen eta Mujikarena gertatu berri zenez, gai politikorik ez aipatzeko saio zidan. Bertsolaria estutzen dugu, baina ez dugu inoiz larritasun batean jarriko. Nori zer eskatu jakitea oso garrantzitsua da. Bertsolariek gustoko duten gaien inguruan kantatu behar dute. Adibidez Joxe Agirrerri interneteko gai bat ez nioke jarriko.

Bertsolari eta gai-jartzaileen arteko harremana nolakoa da?

Ona. Momentu honetan Euskal Herrian plazaz plaza gai jartzen gabiltzanak 5 edo 6 bat gara, eta elkar ongi ezagutzen dugu. Badakigu bakoitza nondik doan eta zer estilo izan dezaken.

Gai-jartzaileak protagonismorik izan behar al du edo bertsolaria da protagonista?

Ez. Gai-jartzailea musika talde bateko gitarrak-jolea bezalakoa da, bere lana ezinbestekoa da, baina abeslaria da garrantzitsua.

Gaia jartzerako orduan zer hartzen duzu kontutan?

Zer plazatan ari zaren, nolako jendea egongo den, ze orduan egiten den, ze garaietan, bertsolariak zer tenplean etorriko diren... Honetaz gain, plaza batzuek esperimintatzeko aukera ematen dizute, beste batzuk, berriz, ez.

Hau zeren arabera izaten da?

Normalean aretoek esperimintatzeko aukera ematen dizute, plaza batean egiten baduzu, jendea, pasatzerakoan gelditu egiten da, baina aretorea jendeak joan egin behar du, eta aukera hori nik gauza berriak egiteko aprobetxatzen dut normalean.

Zuk gai-jartzaile bezala zer duzu gustuko?

Ni esperimintazioaren zalea izandu naiz beti, baina herriko festetan ere hagitz ongi pasatzen dut.

ZINEMA ▶

‘Pareko lehioa’ filma gaur ikusgai, 22:30ean

N. GARZIA

«Azkeneko harena» filmaren zuzendariak, Fernan Ozpetek-ek, *Pareko lehioa* filmarekin nazioarteko onarpenera jasotzeaz gain, sari ugari irabazi zituen Italian. Gaur izango da ikusgai 22:30ean, Gaztetxean. Giovanna ezkondata dago, baina ez da zoriontsu. Bere senarrak ezezagun bat ekarriko du etxera, eta Giovannak pixkanaka honen misterioak ezagutuko ditu. Aldi berean, bere senarrak ez duela maite sentitzen duenez, pareko bizilaguna zelatatuz hark ematen ez dizkion fantasiak sortuko fitu.

Film honek maitasunari buruz hitz egiten digu, bere bilaketari buruz, hau da, norberak beste norbait maitatzeko, bere buruan bilatu behar duen maitasunari buruz.

TELEFONOAK ▶

Larrialdia. ((112)) Osasuna.

▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212

▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.**

Medikua: 65 23 39

▶ **Asteasu.** Medikua: 692423

▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003

▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua:

683361

▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134

▶ **Ibarraldea.** Osasun etxea:

672411

▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329

▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720

▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800

▶ **Orendain.** Medikua: 655595

▶ **Orexa.** Medikua: 682228

▶ **Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111

▶ San Esteban: 006800

▶ Gernikako arbola: 006900

▶ Amaroako dispen.: 672637

▶ Asunzion Klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdia)

▶ **DYA:** 672536

▶ Gurutze Gorria: 674888

▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970

▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 693930

Garraioak.

▶ Renfe: 902 24 02 02

▶ Donostiako autobusa: 361740

▶ Tolosaldea bus: 650621

▶ Leitzaran autob.: 948 221015

▶ Taxia: 670420

▶ Taxia (Leitza): 608 873016

Besterik.

▶ Ertzaintza: 538820

▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858

▶ Tolargi: 650016

▶ Iurrumendi egotiza: 670325

▶ Tolosa gasa: 675320

HELBURUA

«Gure helburua herriko bertsolaritza guztia poltsa berean sartzeta da eta kultur ekintzetan parte hartzea»

BERTSO ESKOLA

«Aurten beste hiru sartu dira, eta hauen maila ezberdina denez, beste modu batetara ari gara lanean»

GAI-JARTZAILEA

«Musika talde bateko gitarrak-jolea bezala da, bere lana ezinbestekoa da, baina abeslaria da garrantzitsua»

AGENDA ▶

24. NAZIOARTEKO TXOTXONGILO JAIALDIA

Tolosa. Leidorren, Venezuelako Naku taldearen *Aguazul*, 12:00etan, 15:00etan eta 18:30ean; Kasinon Argentinako El Nudo taldearen *Un tigre en el gallinero* 11:00etan, 15:00etan eta 18:00etan. Kultur Etxean, La gotera da la azotea taldearen *La gallina Churra* 10:30ean, 15:00etan eta 17:00etan. Ferialekuan, Mexikoko Marionetas de la esquina taldearen *Una luna entre dos casa*, 11:00etan eta 15:00etan.

DEIALDIK

Belauntza. 22:30ean, *Errelebo*a antzezlanak ikusgai, Kultur Etxean. Iker Galartza eta Joseba Usabiaga izango dira aktoreak eta soldadutzaren zentzugabetasuna izango da gai nagusia.

Tolosa. Bonberenean Atila y los Unos taldearen kontzertua, 22:30ean.

ERAKUSKETAK

Alegia. Abenduaren 10era arte Pilarxo Elosegiren margolanak Alegiko jubilatuen tabernan izango dira. Asteartetik igandera bitarte izango dira ikusgai, tabernako ordutegi bera izanik.

Alegia. Azaro Kulturalaren baitan argazki erakusketa berezia ezarri dute: David Apreak prestatutako *idi probak* ikusgai, Alegiko Kultur Etxean, abenduaren 5era arte.

Tolosa. Igandera arte, *Iberiar leihoa* txobxongiloen erakusketa ikusgai Aranburu jauregian, 24. Nazioarteko Txobxongilo jaialdiaren baitan.

Ibarra. Gaur amaituko da Kultur Truke Hamabostaldiaren baitan, bost artisten erakusketa, Kultur Etxean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Areso. Goizueta, F. Loidi etxea. 112.
Tolosa. Bronte, C. Korreo kalea, 20. 943 67 60 13.

▶ HITZak ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Ipuinak egokitu

ANOETA-IRURA ▶ Bea Medrano adituak ipuinen garrantziaz eta modu ez sexistan batean nola kontatu daitezkeen azaldu zuen atzo tailer batean



Bea Medrano, atzo, azalpenak ematen Anoetako Ikastolako liburutegian. I. GARCIA

IMANOL GARCIA

Ipuinen garrantziaz eta hauek betetzen dituzten funtzioetaz mintzatu zen atzo Bea Medrano Urtxintxa Eskolako Aukera Berdintsau-neko teknikaria. Anoetako eta Irurako udalek antolatuta eta genero indarkeriaren aurkako ekitaldien baitan, Medranok ipuin ez sexistak nola kontatu daitezkeen azaldu zuen.

Ipuinak ez direla asko aldatu zehaztu zuen Medranok eta «ipuin tradizionalak edo betiko mezuak dituzte» kontatzen jarraitzen dugula. «Ipuin bat

edo jostailu bat ez da neutroa. Guraso eta hezitzaileek hausnartu egin behar dute zer transmititu nahi duten ipuin bat kontatzerakoan». Ildo horretatik, ipuinen balioa azpimarratu zuen eta baliabide garrantzitsua dela haurrei ideiak eta baloreak ematerakoan.

Ipuinak beti ez direla historia zehar berdindu mantenduz izan zioen adituak. «Txanogorritxoren ipuina ahozko tradiziozik jaso eta Frantziako gor-teko emakumei gizonetzoe-kin zituzten harremanetan kontuz ibiltzeko esateko jaso zen idatziz. Abisu moduko bat

zen, emakumeak gor-teen 'gehiegikeriak' egiten ari zire-lako». Otsa zen gizonetzoe-kin irudia. Gero Grimm anaiek testu hori hartu eta haurren-tzako moldatu zuten.

Ipuin tradizioaletan emakumezkoek eta gizonetzoe-kin har- tzen dituzten rola ere aipatu zituen. Esaterako, emakumez- koa gaztea denean, «ederra izan behar du, zintzoa, arazo- en aurrean ahula dena, hau da, printzearen zain egon behar duena, gizonetzoe-kin zain». Gizonetzoe-kin, aldiz, «salbatzai-

lea da, ausarta, erantzun egin behar duena, eta sentimen- duak eta ahuleziak ezin ditue- na azaldu». Horrelako ideiei aurre egiteko, Medranok «ipu- nak aldatzeko» deia luzatzen du. «Ipuin berdina, baina beste mezu bat ematea, beste amaie- ra bat asmatzea, hau da, guk geuk egokitzea».

Zine-foruma eta ikastaroa

Atzoko tailerraz gain, gaurko- rako beste ekitaldi bat antolatu dute. 17:15ean, Irurako Ikasto- lako aretoan, zine-foruma egin- go da, *Emakumeak eta beren autonomia: sentsazioak eta sentimenduak* gaiarekin. Do- kumental labor bat ikusiko dute eta gero solasaldia egingo dute gaiari adituak direnekin.

Horrez gain, ikastaroa anto- latu dute bi udalek, *Trebetasun sozialak: aldaketak eta erro- rnak emakumeen bizitzan* ize- nekoa. Gai ugari buruz hitz egingo da. Esaterako, emaku- meen eronkak esparru des- berdinetan: bikotea, etxeko lan- nak, amatasuna, zaintza... Kon- tziliarioari buruz ere: bakoitzaren nahiak eta bestee- nak errespetatu, negoziaketa- rako espazioak sortzea. Beste gaiak, norberak bere burua ezagutzea, ahozko eta ez ahoz- ko komunikazioa eta pertso- nen arteko harremanak nola hobetu izango dira. Hilaren 11, 13, 18 y 20an egingo dira, 15:00etatik 17:00etara. Bost euro balio ditu ikastaroak eta izen ematea hilaren 4a arte egin daiteke Anoetako edo Iru- rako udal txetan.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
 Ekain.
 Gaur 6 urte.
 Muxuak familiaren partetik.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker.
Urtebetetzeak, urrezko etzeiak, ezkontzak, jaioberriak...

hitza
 agurren tartea

BIHAR Zinema etxean 2

8 DVD euskaraz

+ 4,50 €

berria

Aukera ezazu, BIZI euskaraz **berria**